Andoaingo Udaleko ordezkariek Eusko Legebiltzarrean egin dute agerraldia, anbulatorioaren egoeraren berri emateko

2026.10.05- Andoni Alvarez Andoaingo alkatea eta Larraitz Arriola zinegotzia Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean egon dira gaur goizean. Andoaingo anbulatorioak duen egoera kezkagarriaz azaldu diete legebiltzarkideei.

Agerraldi hau, azken urte eta erdian Tolosaldeko Osakidetzako zuzendaritzarekin bi aldiz eta bertako langileekin hainbat alditan bildu ostean dator. Egun osasun etxean duen egoeraren deskribapena egin du lehenik Alvarezek: “Andoaingo herritarren osasun arta bermatzeko 11 familia mediku eta 2 pediatra dagozkigu osasun zentroan”, baina egoera oso bestelakoa dela argitu du, izan ere, arratsaldeko txandan mediku bakarra dago Andoainen astelehenetik ostegunera egoten dena. Villabonako osasun zentroan goizean lanaldi osoa egon ostean etortzen dena.

Bestetik, pediatra batek lanaldi murriztua duela aipatu du alkateak, eta ez dela murrizpen hori ordezkatu. Agerraldigileen esanetan, egoera honen larritasuna udaran areatu da, oporraldiak kubritu ezinik egon direlako: “Andoaingo haurrak artatzeko pediatra gabe egon gara”.

Beraz, “11 medikutik 5 ditugu herrian; eta seigarren bat etortzen da arratsaldetan, Villabonan jardunaldi osoa egin ostean”.

Alvarezek esan duenez, “Zoritxarrez urteak dira gauzak okertzen hasi zirenetik eta ohikoa bilakatu den egoera jasanezina hilabete luzez pairatzen ari gara Andoaingo herritarrok”. gaineratu du.

Irtenbide bila

Iazko maiatzean bildu ziren Andoaingo Udaleko ordezkariak Tolosaldeko ESIko zuzendari gerentearekin, “egoera zein zen azaldu zigun, baina ez zigun egoerari buelta emango zion planik edo proposamenik aurkeztu”, aipatu dute agerraldian. 2025eko ekainean, hilabete geroago, “egoerak okerrera egin zuen. 2 eta 3 mediku bakarrik egotera iritsi ziren”, eta aipatu dute horrek eragin zuzena duela ez bakarrik herritarrengan, baita langileengan ere, “langileak oso arduratuta daude, tentsio biziko egoerak pairatzen dituzte egunerokoan”.

Agerraldian, anbulatorioko langileei bere esker ona ere azaldu die alkateak, egiten ari diren lan guztiarengatik eta egoera zail honen aurrean erantzukizunez jarduteagatik.

Irtenbide bila

Iazko maiatzean bildu ziren Andoaingo Udaleko ordezkariak Tolosaldeko ESIko zuzendari gerentearekin, “egoera zein zen azaldu zigun, baina ez zigun egoerari buelta emango zion planik edo proposamenik aurkeztu”, aipatu dute agerraldian. 2025eko ekainean, hilabete geroago, “egoerak okerrera egin zuen. 2 eta 3 mediku bakarrik egotera iritsi ziren”, eta aipatu dute horrek eragin zuzena duela ez bakarrik herritarrengan, baita langileengan ere, “langileak oso arduratuta daude, tentsio biziko egoerak pairatzen dituzte egunerokoan”.